



irailak 22  
**EUSKAL JAIA**

KARROZEN IBILBIDEA • URRETXU 2024

## 12:00.- EUSKAL JAIA IBILALDIAREN HASIERA.

Irteera Pagoetatik izango da. Aurten, 12 kuadrilla aritu dira lanean. Koadrila hauek egindako karrozek eta ondorengo taldeek osatuko dute EUSKAL JAIKO IBILALDIA.

Azpeitiko "Itsasi" Zarpantzar taldea  
Tolosako dultzaineroak eta Urretxuko "Iratzarri" dultzaineroak  
Legazpi, Bergara, Tafalla eta Urretxuko erraldoiak  
Urretxuko "Lizarriturri" Txistulari taldea

01

## ORAINDIK BAGARA kuadrilaren karroza

### HISTORIAREN ITSASOAN EUSKARA DUGU KAIA

Euskal Herria Historiaren itsasoan nabigatzen duen txalupa txikia da. Lurrik ez oinen azpian, airera bideratu behar izan zituen erroak. Airean hitzak aurkitu, hitzak elkartuz hitz-kateak sortu, eta hitz-kateak kateekin kateatuz hizkuntza osatu zen. "Euskara" deitu zitzaion, eta "Euskal Herria" (Euskararen Herria, Euskara dutenen Herria) izango zen hortik aurrera txaluparen izena.

Txalupa txikia izanik gurea, maiz egon ohi da itsaso zakarrean hondoratzeko zorian. Babesleku baten beharra dago, beraz, enbaten erasoetatik gorde ahal izateko, eta Herriari izena eta izana ematen dizkion hizkuntza litzateke porturik seguruen, Historiaren ur handitan desagertu nahi ez izan ezker. Ez da erraza, baina, kaira ailegatzea, kontrako norabidera bultzatzen duten korrante bortitzak daude eta; zorionez, marinela trebeak baditu itsasontzi zaharrak, mendetan zehar zailduak, arriskuak saihestu eta porturako sarrera zeharkatzea behin eta berriz lortzen dutenak.

### EN EL MAR DE LA HISTORIA NUESTRO PUERTO ES EL EUSKARA

*Euskal Herria es una pequeña barca que navega en el mar de la Historia. Sin tierra bajo sus pies, tuvo que dirigir sus raíces hacia el aire. En el aire encontró las palabras, uniendo palabras formó cadenas de palabras, y encadenando cadena con cadena surgió la lengua. "Euskara" se le llamó, y "Euskal Herria" ( País del euskara, o de los que tienen el euskara) sería a partir de entonces el nombre de esa barca.*

*Siendo la nuestra una pequeña barquita, más de una vez ha estado a punto de naufragar en la mar brava. Se necesita, pues, un refugio en el que resguardarse de los ataques de las tormentas. En caso de no querer desaparecer en las aguas profundas de la Historia, la lengua que da nombre y existencia al país vendría a ser el puerto más seguro. No obstante, la entrada al muelle resulta complicada por la presencia de fuertes corrientes que empujan en dirección contraria; afortunadamente, los navegantes de la vieja barca llevan siglos curtiéndose, consiguiendo una y otra vez esquivar los peligros y franquear la entrada del puerto.*

Lurra Dantza Taldea

02

## BETIKO EARRAK kuadrilaren karroza

### JOKATU ARDURAZ ETA BAKARRIK ADINEZ NAGUSIA BAZARA

Antzeman al duzu debekuren bat esaldi honen atzean? Legala dirudien arren, maskara hutsa da. Esaldi honen aurreko iragarki eta propagandek, oharkabean, jokura bultzatzen gaituzte. Gobernuak gai honen inguruan eskuartzea erakutsi nahi duen arren, ez du benetazko debekurik inposatzen.

Jokoaren atzean, diru-kantitate handia mugitzen da eta dakigunez, dirua da mundu honen motorra. Horrek azaltzen du enpresa handi hauek izaten duten jarrera: dirua helburu izanda, milioka pertsonen osasuna "jokoan" jartzea.

Nahiz eta adinez nagusi ez direnentzako jokua debekatua egon, errealitate hau ez da gure egunerokotasunean islatuta ikusten eta asko izaten dira, urrutigo joan gabe, herriko tabernetan bertan, jokoan aritzen diren gazteak.

Hainbat ikerketek diotenez, gazteongan, helduengan baina probabilitate handiagoa dago jokuarekiko adikzioa sortzeko. Gobernuak datu hauek jakin badakizki, baina honi aurka egiteko, ez ditu beharrezko neurriak ezartzen. Gazteek egunero erabiltzen dituzten espazioak apostu eta zorizko jokuz beterik daudela ikusten dugu, eta inork ez du hau eragotzeko ezer egiten.

Gaztaroan, jakinmina nagusi denez, lagunen arteko "jokutxo" batekin hasten dena, menpekotasun egoera larria bilakatu daiteke une batetik bestera. Gainera, gazteek, sarritan, ez dute laguntza eskatzeko beharrik ikusten eta helduei baina zailagoa suertatzen zaie muga bat ezartzea, adikzio bat izateko probabilitatea handituz.

Gizartean, normalizatuta dagoen egoera hau larria bilakatzen ari da eta arazo honi aurre egiteko beharra erakuste aldera, erabaki dugu gure karrozaren gai nagusia izatea. Badakigu, hau aldatzea ez dela lan erraza izango, baina ez ahaztu inoiz: EZINA EKINEZ EGINA!

---

### JUEGA CON RESPONSABILIDAD Y SÓLO SI ERES MAYOR DE EDAD

*¿Has detectado alguna prohibición detrás de esta frase? Aunque parezca legal, es pura máscara. Los anuncios y propagandas anteriores a esta frase, inconscientemente, nos empujan al juego. Aunque el Gobierno quiere demostrar que interviene en este tema, no impone una prohibición real.*

*Detrás del juego se mueve una gran cantidad de dinero y como sabemos, el dinero es el motor de este mundo. Esto explica la actitud de las grandes empresas de "poner en juego" la salud de las personas por millones con el dinero como objetivo.*

*A pesar de la prohibición del juego para los menores de edad, esta realidad no se ve reflejada en nuestro día a día y son muchos los jóvenes que, sin ir más lejos, se dedican al juego en los propios bares del pueblo.*

*Según diversos estudios, en los jóvenes existe una mayor probabilidad de adicción al juego que en los adultos. El Gobierno conoce estos datos, pero no establece las medidas necesarias para oponerse. Vemos que los espacios que utilizan a diario los jóvenes están llenos de apuestas y juegos de azar, y nadie hace nada para impedirlo.*

*En la juventud, como predomina la curiosidad, lo que comienza como un "jueguito" entre amigos, puede convertirse de un momento a otro en una situación de dependencia grave. Además, a menudo los jóvenes no ven la necesidad de pedir ayuda y les resulta más difícil que a los adultos establecer un límite, aumentando la probabilidad de padecer una adicción.*

*En la sociedad, esta situación normalizada se está volviendo grave y para mostrar la necesidad de hacer frente a este problema, hemos decidido que sea el tema central de nuestra carroza. Sabemos que cambiar esto no va a ser una tarea fácil, pero nunca lo olvides: EZINA EKINEZ EGINA!*

*¡LO IMPOSIBLE SE LOGRA CON ESFUERZO Y EMPEÑO!*

---

## BETIKO EARRAK kuadrillaren txaranga

03

## TG kuadrilaren karroza

### MÁS ALLÁ DE LAS APARIENCIAS

"Hansel y Gretel" es un claro ejemplo de cómo las apariencias pueden ser engañosas. En la vida cotidiana, a menudo nos encontramos con situaciones y personas que, al igual que la casa de dulces en el cuento, parecen muy atractivas por fuera pero ocultan peligros o intenciones poco sinceras.

La casa de la bruja, aunque tentadora y deliciosa en su fachada, en realidad es una trampa mortal diseñada para atraer y capturar a los niños. Esta metáfora nos advierte sobre la superficialidad de las apariencias y la importancia de ser cautelosos. En un mundo donde lo superficial y lo instantáneo son altamente valorados, es crucial aprender a mirar más allá de la superficie y distinguir las verdaderas intenciones y el valor real de las cosas.

Esta lección es especialmente relevante en muchos aspectos de nuestra vida. Por lo tanto, es vital desarrollar un sentido crítico y no dejarnos llevar únicamente por lo que parece atractivo a primera vista. Investigar, hacer preguntas y buscar información adicional son prácticas esenciales para evitar ser engañados por las apariencias. Al igual que Hansel y Gretel, que usan su inteligencia y perspicacia para superar la trampa de la bruja, debemos ser prudentes y estratégicos en nuestras decisiones para navegar con éxito a través de las complejidades y engaños que podemos encontrar en la vida diaria.

---

## ITXURETATIK HARATAGO

*Hansel eta Gretel ipuina, itxurak engainagarriak izan daitezkeela erakusten digun adibide argia da. Sarritan aurkitu baidezakegu gure eguneroko bizitzan, azaleko itxura erakargarri baten atzean asmo gaiztoak ezkutatzen dituen egoera edo pertsona bat, ipuinean sorginaren gozokizko etxearekin gertatzen den bezalaxe.*

*Izan ere, gozokizko etxea fatxada hutsa besterik ez da sorginaren ezkutuko asmoentzako, umeak erakarri eta harrapatzeko asmoa baitu berak. Metafora horrek itxurakerien azalkeiaz eta era zuhurrean jokatzearen garrantziaz ohartarazten gaitu. Azalekoa eta berehalakoa oso balioetsiak diren mundu honetan, ezinbestekoa da fatxadaz haratago begiraten ikastea eta gauzen benetako asmoak eta balioak bereiztea.*

*Ikasgai hau bereziki garrantzitsua izan daiteke gure bizitzako hainbat arlotan, beraz, nahitaez garatu behar dugu zentzu kritikoa, eta lehen begiratuan soilik erakargarria izan daitekeenaz ez fidatzea. Ipuinak erakusten digu, gure adimena eta zorrozatasuna erabiltza fatxada gozoaren atzean dagoen tranpa gainditu dezakegula. Zuhurtziaz eta estrategiaz baliatuz, gure eguneroko bizitzan aurkitu daitezkeen engainu eta tranpetatik ateratzeko gaitasuna dugu. Horregatik, funtsezkoa da ikertzea, galderak egitea eta oro har pentsamendu kritikoa izatea.*

## TG kuadrillaren trikitilariak

04

## IRRINTZI DT kuadrilaren karroza

### MAITASUNAREN DANTZA

Dantza maitasunarekin ondo ezkontzen da. Ezkontzaren dantza maitasunarekin ondo batzen da. Eta ezkontzan dantza egitea maite dugu. Dantza zorionaren eta alaitasunaren eszenaratze perfektua da ezkontzetan, baita bizitzan ere. Eta zer alaiago maitasunaren festa baino? Gaur festa, dantza, zoriona eta alaitasuna kaleetan zehar paseatzen dugu.

Une zoriontsuak, txikiak edo handixeagoak, aldarrikatuz, gure egunerokoarekin indartuta jarraitzea garrantzitsuenak.

Dantzarekin ezkondu gara gu, gaur eta beti, lehen korroak ikasi genituenetik. Eta horrela jarraituko dugu festak irauten duen bitartean, dantzaz maiteminduta, giraka eta bueltaka.

Eta bihar biharkoak, gero gerokoak. Bitartean, ospatu dezagun zoriona, laguntasuna eta maitasuna; eta egin dezagun gaur, dantza eta dantza....

## Irrintzi Dantza Taldea

05

## BARUNBA kuadrilaren karroza

### ERRAUTSETATIK LORATZEN

Fenix hegaztia berpizkundearen, itxaropenaren eta betierekotasunaren ikurra da. Txori handi hau bere errautsetatik berpizten den bezala, jadanik gurekin ez daudenei omenaldia egitera gatoz, maite duguna ez baita inoiz hiltzen gure oroitzapenetan bizirik mantentzen badugu.

Kolore dardaratizko lumek eta haien presentzia izugarriak heriotzaz harago jarraitzen duen bizitzaren indarra eta edertasuna irudikatzen dute. Badira gure bizitzetan, fisikoki alde egin arren, benetan inoiz desagertzen ez diren pertsonak. Haien esentziak, irakaspenek eta maitasunak gudan diraute, etengabe birjaiotzen den fenix baten antzera, ondare ahaztezina utziz.

Fenixaren bidez, karroza hau jada ez dauden baina leku berezi batetik gidatzen gaituzten pertsona horiei eskaintzen diegu. Beti izango baitira gure parte, gure indar eta betiereko birjaiotze.

### FLORECIENDO DE LAS CENIZAS

*El Ave Fénix es el símbolo de renacimiento, esperanza y eternidad. Así como este majestuoso pájaro resurge de sus cenizas, venimos a rendir homenaje a aquellos que ya no están con nosotros, ya que aquello que amamos nunca muere si lo mantenemos vivo en nuestros recuerdos.*

*Las plumas de colores vibrantes y su imponente presencia, representa la fuerza y la belleza de una vida que continúa más allá de la muerte. Hay personas en nuestras vidas que, aunque físicamente se vayan, nunca*

*desaparecen realmente. Su esencia, sus enseñanzas y su amor perduran en nosotros, como un fénix que renace constantemente, dejándonos un legado imborrable.*

*A través del fénix, venimos a dedicar esta carroza a estas personas que ya no están, pero que nos están guiando desde un lugar especial. Nunca dejarán de ser parte de nosotros, son nuestra fuerza y nuestro eterno renacer.*

---

## BARUNBA kuadrillaren trikitaliak

06

### OMUBI kuadrilaren karroza

#### ATZOKO ALGARAK, GAURKO WHATSAPP-AK

Garaiak aldatzen dira, gazteenen ondo pasatzeko ohiturak aldatzen diren moduan.

Iraganean, kalean lagunekin jolastea, bizikletan ibiltzea edo futboleko zelaietan aritzea jarduerak gustukoak ziren.

Gaur egun, bideojokoak eta sare sozialak orainaren isla dira. Ez da inor harritzen, umeak TikTokarakin lelotuta edo sarean jolastean bata bestearen ondoan ikustean.

Egia esanda, ematen du teknologia umeak kalean barrezka ikustearen grina alde batera utzi dutela.

Aurrerakuntza berriek bizitza erraztu nahi digute, baina ezer ezin da parekatu parkera eguneroko ordu berdinean ateratzarekin edo txabola bat sortzarekin.

Lotzen gaituzten kable eta sareek umeen sormena eta irudimenerako gaitasuna baztertu dituzte.

---

#### LAS CARCAJADAS DE AYER, LOS WHATSAPP DE HOY

*Los tiempos cambian, al mismo tiempo que las maneras de entretenimiento de los más pequeños.*

*En el pasado, salir a jugar a la calle con los amigos, andar en bici o jugar al fútbol en un descampado eran las actividades favoritas.*

*En la actualidad, los videojuegos y las redes sociales dominan el panorama. No sorprende a nadie, ver a niños embobados con TikTok o jugando online sentados uno al lado del otro.*

*Sinceramente, parece que la tecnología ha robado la magia de observar a niños disfrutando del sencillo acto de reír con sus amigos.*

*Los nuevos avances quieren facilitarnos la vida, pero nada es comparable con salir siempre a la misma hora al parque o hacer una "txabola".*

*Los cables y la redes que nos conectan han usurpado a los niños la capacidad de ser creativos e imaginativos.*

## Zu dantzaz dantza taldea

07

### EMTF kuadrillaren karroza

#### ITZALI PANTAILAK. ALTXA BURUA!

Mugikorrarekiko menpekotasuna azken urteetan gehien hazi den gaitza bilakatu da gazteen artean. Gaur egungo gazte askoren artean gailuaren erabilera ikaragarriko menpekotasuna dagoela aurreikusirik dute azken datu soziologikoen. Gainera, datu hauei gazteek telefonoa geroz eta azkarrago eskuragarri dutela gehitzen badiogu, zalantzarik gabe, arazo larri baten aurrean gaudela esan genezake.

Hori horrela, arazo honek errotik egin beharreko aldaketak behar dituela uste dugu. Gaur egun badaude zenbait dinamika, bai ikastetxeetan, baita kaleko jardunean ere. Horren adibide da "Altxa Burua" dinamika, helduak eta seme-alabak erabilera egokian trebatzea helburu duena.

Itzal ditzagun pantailak, eta gozatu dezagun momentuan momentukoa. Euskal Jaietan, itzali pantailak! Altxa burua!

---

## Larraiza dantza taldea (Lizarrá)

## GURE ARTEAN JARRAITZEN DUTE

Euskal jendartea antzinakoa da, animaliak eta landareak mintzatzen ziren denborakoa, gutxienez. Ez dago jakiterik Mari, Tartalo, laminak, Basajaun, Akerbeltz, Basandere, Gaizkiñe, galtzagorriak, Jaun Zuria, Olentzero edota sorginak euskaldunok, noizbait, amestutako izakiak diren edota, alderantziz, gu geu ez ote garen amestetako sorkari haien irudikapena. Edonola, ehunka urtetan, euskaldunok eta gure kondairek elkar elikatu dugu gure herria sortuz eta birsortuz.

Erne ibiliz gero, basoren bateko haitzulo ezkuturen batean, aurkituko dituzu Tartalok jandako artzain dohakaberen baten hezurrak; edota, erreka bazter bateko harri baten gainean eserita, lamina bat ilea urrezko orraziz apaintzen; begiak eta belarriak ondo irekiz gero, gau ilunean, zerura begiratu eta antzemango dituzu Mateo Txistu eskopeta bizkarrean hartuta, eta entzungo duzu bere txakurren ulua; ez da asko agure batek Txindokiko gailurrean suzko hodei batean Mari pausatzen ikusi zuen; amona batek kontatuta dakigu Sorgin-zulon bizi diren atso-kuadrilla batek tematuta jarraitzen duela, urteak joan, urteak etorri, bere baserriko atean zintzilik dagoen eguzki-lorearen hostoak zenbatu nahian.

Ez dezagun utzi inguraten gaituen harrabotsak gure arbasoen ahotsa isil dezan.

## AH kuadrillaren trikitilariak

## ZEIN PROZESU MOTELA MUNDUKO KOTXERIK AZKARRENA GIDATZEKO

Gidabaimena edukitzea oso garrantzitsua da gaur egun, modu independente eta seguruan mobilizatzeako askatasuna ematen baitu. Norberaren bizilekuaren arabera ezinbestekoa bilakatu daiteke, hala nola, erosketak egiteko edota lanera joateko. Horrekin lotuta, lan-aukera askok eskatzen dute dokumentu hau izatea: ibilgailuak gidatzea eskatzen duten lan jakin batzuk egiteko edota zure etxetik lanera joan ahal izateko. Laburbilduz, gidabaimena ez edukitzeak bizitzaren hainbat arlo garrantzitsu baldintzatu ditzake.

Baina zoritxarrez, gaur egun, gidabaimena lortzeko prozesua nabarmen garestitzen ari da. Klase teoriko, klase praktikoa eta mediku eta trafiko azterketen artean, baita tasa administratiboak ere, gastu guztien batura dezente handitzen da. Ondorioz, prozesua iritsezina izan daiteke baliabide mugatuak dituztenentzat. Bidezkoa litzateke gida baimena lortzea guztiontzat eskuragarria izatea eta ez soilik gutxi batzuek duten pribilegioa izatea.

Bestalde, aztertzaile gutxi egotearen ondorioz, azterketa egin ahal izateko dauden itxarrote-zerrenda luzei aurre egin behar izatea, benetan frustragarria izan daiteke. Egoera horrek gidabaimena lortzeko prozesua luzatzeaz gain, estresa eta antsietatea sortzen du ikasleengan. Maneiu-azterketak egiteko gaituta dagoen langilerik ez izatea oztopo handia da, eta horrek zaildu egiten du hain garrantzitsua eta baldintzatuak den dokumentu hori eskuratzeko aukera. Desiragarria litzateke neurriak hartzea aztertzaile kopurua handitzeko eta askorentzat hain erabakigarria den prozesu hori arintzeko.

## UN PROCESO EXTREMADAMENTE LENTO PARA PODER CONDUCIR EL COCHE MÁS RÁPIDO DEL MUNDO

*Tener un permiso de conducir es muy importante hoy en día, ya que proporciona la libertad de moverse de manera independiente y segura. Dependiendo del lugar de residencia, puede volverse imprescindible, por ejemplo para hacer compras o ir al trabajo. Así mismo, muchas oportunidades laborales requieren tener este permiso: algunos trabajos específicos que exigen conducir vehículos o para poder desplazarse de casa al trabajo. En resumen, no tener permiso de conducir puede condicionar diferentes aspectos del día a día.*

*Pero por desgracia, actualmente, el proceso para obtener el permiso de conducir se está encareciendo notablemente. Entre las clases teóricas, las clases prácticas, los exámenes médicos y de tráfico, así como las tasas administrativas, la suma total de todos los gastos aumenta considerablemente. En consecuencia, el proceso puede volverse inaccesible para aquellos con recursos limitados. Sería justo que obtener el permiso de conducir fuera accesible para todos y no solo un privilegio para unos pocos.*

*Por otro lado, debido a la escasez de examinadores, tener que enfrentar largas listas de espera para poder realizar el examen puede ser realmente frustrante. Esta situación, además de alargar el proceso para obtener el permiso de conducir, genera estrés y ansiedad en los estudiantes. La falta de personal capacitado para realizar los exámenes de manejo es un gran obstáculo, y esto dificulta la posibilidad de obtener este documento tan importante y condicionante. Sería de gran ayuda tanto como necesario, tomar medidas para aumentar el número de examinadores y agilizar este proceso que es tan decisivo para muchos.*

---

## LBDK kuadrillaren trikitilariak

10

### AZKENA TA ETXERA kuadrilaren karroza

#### SUAK IRENTSI DUEN HERRIA

Zerua naranja koloreko bilakatu zen herensugeak ahoa ireki eta amaigabeko sua kanporatu zuenean, korrika zihoazen pertsona guztien aurka. Bere aurrean topatzen zuen guztia suntsitu nahian zirudien herensugeak eta herrixkako pertsonarik ausartena ere ez zen saiatu hura geldiarazten.

Amets gaizto bat dirudiena munduko toki zehatz batean errealitate gordina da. Palestina desagertarazi nahiean diardu Israelen suak: gurasoek haurrak galtzen dituzte eta haurrek etorkizuna. Bonba hotsen artean galdu dira itsaropenak eta ametsak, beraien etxea eta familia galdu dituztenen malkoetan islatuta.

Bonba hotsen soinua munduko beste leku askotara iristen bada ere, denek beste alde batera begiratzen dute suak lurra suntsitu bitartean.

---

#### EL PUEBLO DEVORADO POR EL FUEGO

*El cielo se volvió naranja cuando el dragón abrió la boca y salió de ella un fuego infinito, atacando a aquellas personas que huían corriendo. El dragón parecía querer acabar con todo lo que se pusiera delante y ni la persona más valiente del poblado se atrevió a intentar parar al dragón.*

*Lo que parece una pesadilla, es la cruda realidad en un sitio muy concreto del mundo. El fuego de Israel intenta hacer desaparecer a Palestina: los padres pierden a sus hijos y los niños pierden su futuro. Las esperanzas y los sueños se han perdido entre el sonido de las bombas, reflejadas en las lágrimas de los que han perdido su casa y su familia.*

*Aunque el estruendo de las bombas llegue a otros sitios del mundo, todos miran hacia otro lado mientras el fuego destruye la tierra.*

---

## Urretxuko trikitilariak

11

### HDM kuadrilaren karroza

#### ZER DAGO IKUSTEN DUGUNAREN ATZEAN?

XVII. mendean eraiki zen Taj Mahala Indian, gaur egun munduko bigarren herrialde txiroena den tokian, dirurik ez duen herrialde baten aberastasuna bertan utziz. Aurten, 2024. urtean, istorioa errepikatzeaz dago, Indiako gizon aberatsenaren semearen eta enpresaburu baten alabaren arteko ezkontzan.

Indiako familia bat ezkontza batean miloika rupia xahutzen ari den bitartean, ehuneko handi batek ez du egunero otordu bat izateko aukerarik. Herrialdearen %15a pobrezia egoeran bizi da, Bonbaian hain zuzen ere, munduan txabola gehien dituen hirian.

Ez dakigu zer den hainbeste diru eta eraikin politen atzean dagoena. Ez gara ohartzten erakusten digutena ez dela errealitatea eta gainera ez dugu errealitate hori ikusi nahi. Ez gara erakusten digutenaren atzean dagoena ikusteko gai.

---

## ¿QUÉ HAY DETRÁS DE LO QUE VEMOS?

*El Taj Mahal se construyó en el siglo XVII en India invirtiéndose en él la riqueza de un país que hoy en día es el segundo más pobre del mundo. Este año, 2024, la historia se repite con la boda entre el hijo del hombre más rico de India y la hija de un empresario.*

*Mientras una familia india gasta millones de rupias en una boda, un gran porcentaje de la población no tiene ni para comer. El 15% de la población del país vive en pobreza extrema y concretamente Bombay es la ciudad con más chabolas del mundo.*

*No sabemos qué se esconde detrás de tanto lujo y edificios majestuosos. No nos damos cuenta de que lo que nos muestran no es la realidad y, además, es esta la realidad que decidimos ignorar, ya que no somos capaces de ver lo que hay detrás de lo que nos muestran.*

## HDM kuadrillaren trikitilariak

12

## ORAIN PRESOKAK kuadrillaren karroza

### MEDEKUZKO HORMAK ETA HEZUR-HARAGIZKO GILTZAK

Lau horma ez dira beti babes eta aterpearen seinale. Batzurentzat ez dira izan inondik inora, gure etxeetako goxotasun eta segurtasunaren adibide. Badira urteak, lau horma horiek espetxe bihurtu zirela eta zerrailak itxi zituztela herritar eta lagun askorentzat euren begiradak eta bihotzak hesituz.

Baina horma eta muga horiek ez dira solik harri edo adreiluzkoak. Gorroto eta ezinikusizko pareta ere badira batzurentzat. Mendeku politika baten harresi eta murru zeharkaezinak.

Bada garaia, harresiak eraitsi eta konponbideari atek irekitzeko. Etxean behar ditugu, aske eta seguru! Espetxeetan dauden presoak etxeratuz, 3. graduan daudenen askatasun osoarekin eta Euskal Herritik urrun daudenen itzulerarekin lortuko da begiradak zabaldu eta gorrotoa eta mendekua alde batera uztea.

Baina, paretak, harrizkoak solik ez diren moduan, giltzak ere ez dira altzairu edo metalezkoak bakarrik; hezur haragizkoak ere badira. Herri hau osatzen dugun pertsonen haragi eta giharrezkoak. Askatasunera buelta egin eta espetxe eta mugetako zerrailak irekitzeko giltza gara gu guztiok.

Beraz, mendekuzko hormen aurrean, hezur eta haragizko giltzak behar ditugu.

Gorrotoko harresien aurrean, etxeko babes, eta denon etxea izango den konponbideari babes.

Euskal presoak etxera!

“Secundino Esnaola” Mwa Eskolako musikariak

HERRI BOTOA  
VOTO POPULAR



EMAN ZURE BOTOA HEMEN  
DA TU VOTO AQUÍ

